



39. Abesbatza Lehiaketa hasiko da gaur Leidorren

TOLOSA ▶ Azaroaren 4ra
arte 22 abesbatza
lehiatuko dira guztira

KALITATEA ▶ lazko
mailari eustea izango da
TEEren helburua ▶ 2-3



Azken ukituak eman dizkiote Leidorri; konba akustikoa jarri dute. i. r.



Abaraska aberasteko II. Azaro Kulturala abian

ALEGIA ▶ Larunbatetik aurrera, Alegian II. Azaro Kulturalari ekingo diote. Herritar guztien parte-hartzearekin egitarau oparoa osatu dute Udaletik. Maider Jauregi Kultur zinegotziak «eskerrak» eman zituen herenegun eginiko aurkezpenean. N. URBIZU ▶ 6

LEITZA ▶

Zinema denboraldiari ekingo diote asteburu honetan, 2 filmarekin, 7



laster
sarean kateatuago...

39. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Ahots gozoen lehia hastera doa!

Gaur hasi eta azaroaren 4ra arte Tolosako Abesbatza Lehiaketa izango da; polifonia eta folklore sailean lehiatuko dira gaur lehendabiziko bi abesbatzak

I. TERRADILLOS - E. EZEIZA

Hemen dira berriro ere munduko abesbatza onenak, Tolosako lehiaketako sari handia eramateko gogoz. Gaur arratsaldean Leidorko eskenatoki-ko oihala igoko da 39. Abesbatza Lehiaketari hasiera emateko.

Denera 22 abesbatzek hartuko dute parte edizio honetan. Helduak, folklore, polifonia, profano eta erlijioso sailean lehiatuko dira. Hiru egunetako kontzertuen ondoren, larunbat gauerdian emango du jakitera epaimahaiak nor den irabazlea. Aurten, aldaketak izan dira hemen ere. Azken urteetan Enrike Azurza izan bada ere ma- haiko lehendakari, aurten Xabier Sarasola izango da. Hau biolin, piano eta armoniako irakaslea da. Loiaz abesbatzako zuzendaria da, eta berarekin zenbait sari eta izendapen lortu ditu. Berarekin batera, lan berdinean ariko dira: Peter Erdei Hungriakoa, Kent Hatte-



Esloveniako Ave Chamber Choir abesbatza gaur lehiatuko da polifonia eta folklore atalean. HITZA

berg Amerikar Estatu Batueta-koa, Bo Johansson suediarra, Venno Laul Estoniakoa, Werner Pfaff alemaniarra eta Loïc Pierre Frantziarra.

Gaurko saioan entzun ahal izango diren abesbatzak bi dira. Hauek Leidor antzokian izango dira 19:30etik aurrera.

**FOLKLOREA ETA POLIFONIA
AVE CHAMBER CHOIR****Jatorria.**

Ljubljana (Eslovenia).

Zuzendaria.

Andraz Hauptman.

Taldekideak. 18 emakume eta 18 gizonetako.

Historia. 1984an eratu zuen abeslari sutu talde batek Vikeko parrokian. Bere interpretazioen freskotasanak eta Hauptman maisuaren zuzendaritzapeko musika zorrotzasanak abeslari ugari erakar- tzen ditu eta Esloveniako abes- batzar onenetariko batean bihurtu ditu. Batez ere 1988tik aurrera, Eslovenian kontzertu ugari eta nazioarteko jaialdi eta lehiaketetan parte hartzen dute. Urte hauetan zehar hain- bat sari irabazi dituzte estatu- ko nahiz nazioarteko abesba- tza lehiaketetan.

ANA ARRETXE ▶ TOLOSAKO EGINBIDE ETXETAKO LEHENDAKARIA

«Maila mantentzea da gure asmoa»

Urte osoko lana izaten dela Abesbatza Lehiaketa presta- tzearena dio Ana Arretxe (To- losa, 1960), baina, dena den, Lehiaketako egunak gertur- tzen doazen heinean «dana are- agotu egiten da». Hainbat ber- rikuntzekin dator aurtengoa. **Urduritasuna izango duzu na- gusi Abesbatza Lehiaketa hastear den une honetan.** Esango nuke koru guztiak To- losan egon arte ez gaudela era- bat lasai, izan ere, izaten dira azken orduko arazoak. Esate- rako, Ukrainako Khmelnytsky abesbatzak etorri behar zuen aurten lehiatzera, baina azke- nean ez da posible izan bisa kontuengatik. Beraz, 10 izango dira koru mixtoak.

Iazko Lehiaketan maila han- dia zegoela, eta zaila izango

zela hori gainditzea esan ze- nuten. Aurtengoa nolakoa da mallari dagokionez?

Gure asmoa urtetik urtera maila mantentzea izaten da. Iazkoa oso maila altukoa izan zen, baina aurtengoa ere gu- txienez iazkoa bezalakoa izate- a espero dugu.

Aurten abesbatza gazteak dira nagusi.

Bai, Suedia, Letonia eta Singa- purrekoa dira horren adibide. Hauek musika eskoletatik dato- z, formazio handiarekin, beraz. Lurralde horietan musika eskola asko dauden seinale. Gurean arlo horretan hutsune handia dugu, eta federaziek hori bultzatu nahi duten arren, oraindik lan handia dugu egi- teko.

Zeintzuk dira aurtengo berri- kuntzak?

Abesbatza gazte asko daudela esan dugu, eta horretaz gain, kontxa akustikoarena dago; ea horrekin akustika hobetzen dugun. Aurten estreinakoza dator Singapurteko abesbatza bat, eta Amerikatik 5 koru dato- ztela ere aipagarria da.

Euskal Herriko bi koruak ere gaztetxoak dira.

Bai, pena da biak sail berean lehiatzea, baina, aldi berean polita ere bada. Besteek maila altua izango dute, musika eskoletatik baitatoz, beraz, ikusi beharko zer gertatzen den.

Folklore atalari ematen al zaio beste lehiaketetan he- men adina garrantzi?

Batzuetan ez da egiten, eta beste batzuetan erakustaldi gixa egiten dute. Guk pentsa- tzen dugu gure musika zabal- tzea lehiaketaren helburua dela; nortasun zeinua da, eta mantendu egin nahi dugu, as- kok galdetu duten arren zer- gatik egiten dugun.

Pasa den larunbatean Abes- batzen Topaketa izan zen. Zer moduz joan zen?

Pasaia, Amets Gazte eta Oroith abesbatzek hartu zuten parte, eta oso polita izan zen. Bakoi- tzak bere lanak aurkeztu zi- tuen, eta guztiak elkarrekin ere abestu zuten. Berezia izan zen Josu Elberdinen *Segala- riak* lana abestu zutenean.

TEEK 40 urte bete ditu aur-



I. TERRADILLOS

ten. Hori nabaritu al da Abesbatza Lehiaketan?

Urteurrena dela eta, eskultu- ren zirkloa itxi genuen eta libu- rua ere atera genuen, baina Lehiaketarako ez dugu ezer berezirik prestatu. Agian hu- rrengo urtekoa 40. a izango de- nez, orduan zerbait berezia egongo da.

Sarriren salmentari buruz zer esan dezakezu?

TEEko egoitzan egin ordez, Ku- txaren bidez egin dugu aurten lehen aldiz. Beste urteetan be- zala haurren lehiaketakoak salgai jarri ziren goizean bertan saldu ziren, eta bukae- rako saiokoak ere ia salduta daude. ◀

ONGIZATE
Aukera Naturala

ZURE BIZI KALITATEA HOBETZEN

- Masiara
- Naturopatia
- Homeopatia...

Kale Nagusia, 11
Billabona
Tel. 627 400209

**STOCKHOLMS
MUSIKGYMNASIUMS
KAMMARKÖR**

Jatorria. Estokolmo (Suedia).
Zuzendaria. Helene Stureborg.
Taldekideak. 19 emakume eta 20 gizonetako.

Historia. Estokolmoko Kontserbatorioko abesbatzetako bat da. Ganbara Abesbatza hau Gary Gradenek eratu zuen 1989an ikasleen abesbatza kantuko esperientzia zabaltzeko eta beraien akademia mailako abesbatza heziketa osatzeko asmoz. Berehala nazioarteko lehiaketetan ospe handia irabazten hasi zen, Neumünster (1990), Tours (1991) eta Riva del Garda (1992). IFCMren eskutik 1995eko Ljubljananako Abesbatza Simposiumean parte hartzeko gonbidapenak ere beste maila bat eman zion taldeari. 1997an Vaticanoan. 2002an, Gary Gradenek abesbatza utzi zuen eta Helene Stureborg da oraingo zuzendaria.



Kontxa akustikoa ipini dute Leidor antzokian. I. TERRADILLOS



Suediatik dator, gaur ariko den Stockholms Musikgymnasiums Kammarkör abesbatza. HITZA

IRITZIA ▶ MIGEL ZEBERIO (ABESBATZA ZUZENDARIA)

Santu Guztieneko loreak



Tolosako Abesbatza Lehiaketak zenbaitzuren bizitza markatzen du. Urteroak, jai nagusiak: (Gabonak, Inauteriak, Aste Santua) eta abarren antzera, beti izan du toki zehatza egutegian, ezagutza dudanetik. Edonola, Santu Guztieneko honek, lore usaina dakarkit burura baina ez kanposantukoa, Leidor antzokiko eszenatokikoa baizik. Musikaren munduan, nagusiki koruen artean murgilduak gabiltzanontzat, ezinbesteko mugarri bilakatu da Lehiaketa hau. Neri dagokidanean, ez da bereizterraza musika zaletasuna edo Lehiaketaren arteko lotura. Horrenbeste urtez, txiki txikitandik, gertakari hain berezi hau bizi eta dastatzeko parada izan dugunok, argi ikusten dugu, gure jakin nahiaren lehiio asko iriki dizkigula Lehiaketak. Mundu osoko aditu eta jendeak probintziako herri batean naturaltasunez dabilzkigu urterik urte. Zoko guztietako ezaguera, ñabardura, aberastasun edo askotan zergatik ez nobedadeak gureganatzen dizkigute urteroko uholdetxoan. Tarteka,

aho bete hortz uzteko modukoak ere izan dira; hasera bera; lehen ekialde komunista hartako autobus keetsuetatik zetorzkigun airekadak gero: gizon emakume urruneoak haiek, janzkera koloretsuak batzuk, operazale eta zelebreak besteak, berritasuna parrastran; Europa erdiko herri garatueneke ere harritzen gintuzten. Eskandinabiarrak, bikiingoan antzera, adarrik gabe baina doinu berriez txunditu gintuzten ondoren. Lehen karibearrek, itsasoaz bestaldeko erritmo gozoez zorabiatu gintuztenekoa ere ez zen makala izan. Eta abar luzea.

Munduko bazterretan kantu erakargarri edo liluragarriak bada Lehiaketa honek imantu eta beregana ekartzeko guztiak egiten jarraitzen du. Maila honetako ospakizunak aldiz, urteak joan eta urteak etorri, herritarrek eta bereziki gaxtetxoekin loturak ez sendotzeak kezkarako abagune gertatu beharko litzaiguke. Pagotxa etxean dugu aspaldi, baina bere oihartzuna apalduz edo lausotuz joan ordez, goratuz joan dadin sostengua falta zaiolakoan nago. Entzulegoa bereganatzeko lanak ahaztutxoak ditu. Formula berriak arakatzeko beharra dugu herritarren mesedetan. Bilaka bedi kultur haztegi eta ez kultur koto.

EGITARAUA ▶

URRIAK 31, GAUR
Leidor antzokia (19:30).
Folklore eta Polifonia
▶ Ave Chamber Choir.
▶ Stockholms Musikgymnasiums Kammarkör.

AZAROAK 1, BIHAR
Leidor antzokia (11:00).
Haur abesbatzak
▶ Cantilon Chamber Choir.
▶ StockGirls' Choir of Old Town Music House.
▶ Luis Dorado Unamuno Abesbatza.
▶ Orereta Abesbatza.
▶ Vörösmarty-Erkel Children's Choir.
▶ Coro del Colegio de Pedagogia Musical Moscu.
Leidor antzokia (16:00).
Folklore eta Polifonia saila.
▶ Coro de camara Oldenburg.
▶ Vocaal Ensemble Cantando.
▶ Mixed Choir of Latvian Academy of Music.

▶ Syc Ensemble Singers.
▶ Cantoria de Merida.
Leidor antzokia (19:30).
Folklore eta Polifonia saila.
▶ Coro de camara Oldenburg.
▶ Vocaal Ensemble Cantando.
▶ Mixed Choir of Latvian Academy of Music.
▶ Syc Ensemble Singers.
▶ Cantoria de Merida.

AZAROAK 2, ETZI
Leidor antzokia (19:30).
Polifonia eta folklore saila
▶ Vox Gaudiosa.
▶ Kammerkoret Nova.
▶ Choros Amici.

AZAROAK 3, LARUNBATA
Santa Klara eliza (11:00).
Musika erlijiosoa
▶ Voca que Usa.
▶ Cantilon Chamber Choir.
▶ Camerata Vocale Sine Nomine.
▶ Ave Chamber Choir.

▶ The Rose Ensemble.
▶ Pegasus.
Leidor antzokia (16:00).
Musika profanoa
▶ Voca que Usa.
▶ Cantilon Chamber Choir.
▶ Camerata Vocale Sine Nomine.
▶ Ave Chamber Choir.
▶ The Rose Ensemble.
▶ Pegasus.
Leidor antzokia (20:00).
▶ Golden Apple Quartet.
Udaletxea (22:00).
▶ Harrera ofiziala.
Beotibar pilotalekua (23:00).
▶ Dantzaldia eta Epaimahaiaren erabakia.
AZAROAK 4, IGANDEA
Leidor antzokia (11:00).
▶ Sari banaketa.
▶ Agur jaunak abestu.
Udal Ferialekua (14:30).
▶ Abesbatzen bazkaria.
San Frantzisko eliza (19:00).
▶ Norbegiako Kammerkoret Nova abesbatzaren kontzertua.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa: Agirre eta Irazu finalerdietan daude. Finalean eskualdeko inor ikusten al duzu? ▶

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Etxebizitza. Diseinuko pisua Lizartzan. 110 m², belarditxoarekin. 38.000.000 pezeta. Interesatuak deitu 653 74 47 75ra.

www.tolosaldekohitza.info

**zure albisteak
uneoro sarean**

www.tolosaldekohitza.info

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Espainiakoan lehen postua lortu du Iker Hernandezek

Jokin Urkizu bigarrena, Kellyam Quintana seigarrena eta Adrian Sasiain zortzigarrena izan dira 15 urte azpiko mailan



Zutik eta ezkerretik hasita, Jokin Urkizu, Batis Kortajarena eta Iker Hernandezek; eserita, ezkerretik hasita, Koldo Saratxo eta Adrian Sasiain. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Danena-Olaederra halterofilia taldekoek emaitza onak biltzen jarraitzen dute. 15 urte azpiko Espainiako eta Euskadiko Txapelketak jokatu berri dituzte taldeko hainbat pultsulariek. Iker Hernandezek 62 kiloko mailan lehen postua lortu zuen Espainiakoan eta Euskadiko sailkapen orokorrean.

Espainiako Txapelketan ere Jokin Urkizuk bigarren postua lortu zuen 85 kilo baino gehiagoko mailan. Kellyam Quintana

seigarren izan zen 45 kiloko mailan eta Adrian Sasiain zortzigarren 50 kilokoan. Hauek guztiak, Danena-Olaederrako Koldo Saratxorekin batera, Gipuzkoako selekzioa osatu zuten Euskadiko Txapelketan eta lehenengo postua lortu zuten.

Batis Kortajarena Danena-Olaederrak prestatzailea «gustura» agertu da. «Bakarkako kirola izanik maila mantentzea zaila da, kostatu egiten da. Horregatik orain lortutako emaitza hauek bultzada emateko balioko dute».

Iker Hernandez «pozik» dago lortutako dominarekin. Bigarren urtez jarraian lortu du, gainera. Oraingoan bere ohiko pisu-mailatik goragokoa lortu du irabaztea.

Danena-Olaederrakoen hurrengo txapelketa azaroaren 23an izango da, Iruñean. 17 urte azpiko Espainiako Txapelketa izango dute jokoan. Bertan izango dira Iker Hernandez, Jokin Urkizu, Igor Sasiain, Julen Intxausti, Mikel Quintana eta Jon Ander Iriarte pultsulariak.

ANOETA ▶ AHT



Baserrietan informazioa zabaltzen izan dira. HITZA

Informazioa zabaltzen lehenengo sektorean

Web orrialdea jarri dute martxan prozesuari buruzko informazioa zintzilikatzeko

ERREDAKZIOA

Anoetan AHTri buruzko informazio kanpaina jarri dute abian, abenduaren 2rako antolatu den herri galdeketeri begira. Informazio kanpainaren baitan, aste honetan lehenengo sektoreari eta AHTren obrak zuzenean eragingo dien lurjabeekin lan egin dute.

«AHTren obrak dagoeneko hasiak dira leku askotan eta pixkana Anoetara ere bada toz», azaldu dute kanpainaren antolatzaileek. «Obren gertutasuna ikusirik eta, lurjabe eta lehenengo sektoreari inork informaziorik eman ez dienez, aste honetan horretan ariko gara». Honekin lotuta Anoetako Udala kaltetutako lurjabe eta lehenengo sektorearekin elkartu da udaletxean.

Bestalde, larunbateko mendian zehar, baserriarrei informazioa banatu zitzaizen eta AHTk eragingo dituen kalteak azaltzen dituen panelak berriro ipini ziren.

Horrez gain, web orri bat egin dute, AHTren inguruan Anoetan burutzen ari diren

prozesu horren inguruko informazioa zintzilikatzeko. www.mundur.net/anoetanahte da helbidea. Bertan sail ezberdinak aurki daitezke: albisteak, prozesu guztia inguruko azalpenak, Anoetan eragingo dituen kalteak, herriko eragileek argitaratu dituzten iritzi artikulak, antolatu dituzten ekimenak azaltzen diren agenda zabala, eragile ezberdinek komunikabide ezberdinetan egin dituzten elkarrizketak...

Gaur, kontzertua

Beste ekitaldi batzuk ere antolatu dituzte. Esaterako, gaurko kontzertua antolatu dute Gaztetxean. Mantis eta Harlore taldeak ariko dira, zarauzta-rrak biak.

Beste ekitaldia, larunbaterako antolatu dute: sega eta aizkora desafioa. Anoetakoak eskualdeko beste batzuen aurka ariko dira lehia bi protuen kalteak azaltzen dituen panelak berriro ipini ziren. Horrez gain, web orri bat egin dute, AHTren inguruan Anoetan burutzen ari diren

“Natura bezain eraginkorra”

eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308 berria



Informazio panelak jartzen kalteak jasoko dituzten eremuetan. HITZA

AUTOAK ▶

MIGEL GIBELALDE ▶ TOLOSA MOTOR-EKO GERENTEA

«Etorkizuna ingurumenari lotutako autoekin etorriko da»

Autoen merkaturak goruntz edo beheruntz doan eta horren zergatiak azaldu ditu Migel Gibelalde (Tolosa, 1950), Tolosa Motor-eko kudeatzaileak.

Zein hilabetetan saltzen dira kotxe gehien?

Kontu hau asko aldatu da. Orain dela urte batzuk, Espainiatik jende asko etorri zen. Garai horretan, maiatza, ekaina eta uztailan saltzen ziren kotxe gehienak. Zergatik? Argi dago: jendeak oporretara autotz joan nahi zuelako. Herrira autotz joaten ziren, eta hau oporotasun ezaugarri bezala ikusten zen; «begira hau han zein ongi bizitzen ari den» etabar. Baina gauzak aldatu egin dira, belaraldi berriak hemen jaio eta bizi direlako. Gaur egun, ekainak eta uztailak indartsu jarraitzen dute baina ez lehen bezala. Gaur, urte guztian autoen salmenta banatuagoa aurkitzen da.

Orain dela urte batzuk boom bat egon zen auto salmentan.

Nik beti pentsatu izan dut berriro planek baino, euroarako aldatetarako eragin handiagoa izan zuela. Ia mundu guztiak kotxeak erosi ditu. Enpresa handiak indartsu egon gara garai horretan lanean. Orain berriz, estuasun txiki batzuk pasatzen ari da autoen sektorea.

Behera doa beraz jarrera.

Boom horretatik ona salmenta jeitsi egin da bai, baina ez zen normala igo garen bezala igo-tzen jarraitzea. Alemania eta Frantzia %3 eta %4 igo-tzen ari zirenean salmentak, Espainian %11-12 ari zen igo-tzen. Orain gutxiago saltzen ari garela esaten dute. Horrela da baina, ez dago hondamendirik. Beti daude beherakadak. Normalean 8 urte irauten du batzuetan autoak. Zikloak daude, gorakoak eta beherakoak eta hemendik urte batzuetara, berriz ere kotxe zaharren lekua hartuko dute berriak. Urte hauetan salmentak ez dira hain gaizki, hain ongi ez doala gertatzen da.

Etorkizuneko autoetan, ingurumenak aginduko al du?

Etorkizuna hortik doa. Guk ere ikusiko ditugulakoan nago. Auto hibridoak hemen daude jada, nahiz eta oraindik denok nahi bezala ez funtzionatu. Hala ere, urte batzuen ingu-



A. IMAZ

ruan egoera asko aldatuko denaz, ez dut zalantzik.

Eta asiar autoak?

Galdera batekin erantzungo dizut. Kotxe hauek europar auto baten prezio bera izango balute, zein auto erosiko zenuke?

Zubia nabaritzen al duzue tallerrean?

Hilabetearen hasieran izango balitz nabariturik litzateke, baina amaieran denez, ez da horrenbeste nabaritzen. Hala eta guztiz ere gaur egungo kotxeak ongi prestatuak egoten dira. ◀

DI-DA BATEAN ▶

Renault? Marka on bat.

Ford? Amerikarrekin beti eduki behar da kontu handia.

Peugeot? Denetan hobere-na.

Mercedes? Aparte utzi behar da. Izarra dauka.

Audi? Oso onak. Uztailak asko janzten dute.

BMW? Alemaniarrak kotxe on bat.

Lancia? Kotxe oso deigarri bat baina italiarrek mimo asko behar dituzte.

Kia, Hunday...? Marka horiek bigarren mailan uzten ditut.



Autoak taller batean ilaran, egun hauetako zubiaren aurretik azken ukituak jasoz. ASIER IMAZ

Kotxe borroka telebistan

Autoak hizpide bilakatu dira azkenaldian, komunikabideek horretan eragin zuzena izan dutelarik

ASIER IMAZ

Formula 1eko azken lasterketa Brasilen jokatu zuten. Mc Laren-Mercedes, Ferrari eta antzeko markak bertan elkartu ziren piloturik onenaren lehia erabakitzeko.

Gure bi eskualdeetan eta orohar Euskal Herrian, Formula 1ak eragina izan du; dirudie-nez jarraitzaile sutsuak aurkitzen dira gure artean, pilota partiden ordutegiak horren ishlada: Brasilgo Sari Nagusiaren aitzakian, Mikel Goñi beraren partida ere aurreratu beharra izan baitzuten.

Alonso eta Hamiltonen arteko lehia ikusteko, hiru lagun elkartu ziren Tolosako taberna batean. Hiru kotxezale amorratu, bakoitza bere autoan. Bien bitartean, Mercedes bat, Volkswagen furgoneta bat eta Saxo

bat tabernaren kanpoan gertatu ziren euren jabeen zain.

18:00ak baino lehen elkartu ziren. Hiru garagardo eskuan eta Brasilgo irteeraren zain, irratian, telebistan edo batek daki non entzundako irizti eta datuak, elkarri kontatzen hasi ziren: «Bruce Leeren anuntziari esker, ba al dakik BMWk Mercedes pasa duela luxuzko autoen salmentan, 13 urte borrokan aritu ondoren, gaur atzean ibili beharko dik ba, Ferrariren modura». «Bigarren eskuko autoen merkaturak goraka omen zia. 2007ko lehen 7 hilabeteetan %7a igo dekelatzen diat, ia milioi bat kotxe. Matrikulazioa berriz, %1,4a jeitsi duk». Aparra ezpainetan, «orduan erreklamazioak %7 igoko dituk» erantzun zion lagunak. «Renting-a duk etorkizuna», esan zuen halako bate-

an, ordurarte isilik egon zen hirugarren lagunak. Lehen biek kasu handirik ez ziotelako egin edo 18:00ak gainean zirelako, *Renting* terminoa hor gertatu zen airean.

Behin irteeran gertatua hamaika aldiz eztabaidatu ondoren, hirugarrenak *Renting*-az hasi zen hizketan. «Gaur egun, jendea ez zegoen kotxe berriak erosteko. Hipoteka eta mila istorio. Etorkizuna *Renting*-a duk». «Zer duk hori?». «*Renting*-a, denbora luzerako kotxe bat alkitatzea duk. Bere mementu onena aprobetxatu eta maldan behera hasten dekenean, beste bat hartzen duk». «Hire Mercedes berria bezelakorik ez zegoen».



AUTOLABAKA, S.L.

Autoaren konponketa • Gasolina eta Diesel
ITVrako • Garbiketara • Koipezatzea
Gurpilak • Direkzioaren kontrola

Laskibar ind. • Tel.: 943 69 12 48
IRURA (Gipuzkoa)

ANOETA KARROZERIA



TXAPA ETA PINTURA
LEHORKETA INFRAGORRIZ

Bentaldea Industrialdea • Anoeta
Tel.: 943 65 13 08
Faxa: 943 65 25 06
admi@carroceriasanoeta.com

GUTUN@K ▶

Garenak garelako

Lizartzan Alderdien Lege deituriko lege arrotz faxista aurreko legealdian EAJren salbatazaileen eskutik pairatu behar izan genuen. Iruran edo Leaburun bezala, ez zegozkien karguak hartu ez baituzte aurreko legealdikoek jarraitu ahal izango zuten udaletxean, herriak erabaki moduan. Baina herri borondateari iseka eginez alkatetza lapurtu zen herriaren alde lan egiteko zen Egibar

«abertzale zintzoak», lege espainiarra eskutan harturik. 4 urtetan baina, Udala blokeo egoeran mantendu zuen.

Aurtengo maiatzeko hauteskundeetan ez dira aurkezteko gai izan eta EAERI bozkak kendu asmoz bozka zuria eskatu dute. Bestalde, berriro, herritarrez osaturiko bi zerrendak «baliogabetu» ditu Madrilerekin eta 27 bozkekin PPren faxistek lapurtu dute alkatetza.

Gertaera honen aurrean herriak eman duen eta ematen ari den erantzuna txalogarria izan da, oztopo guztien gaine-

rik herri gisa tinko erantzunez eta herri antolaketa gaitasun aparta erakutsiz. Bejondeizuela lan horretan diharduzuen guztioi eta animo! Jarrai bide horretan, lagunok.

Lehen egunetik, ordea, oraintsu arte egoera okertuz joan da. Otaolak eta PPK Espainiari begirako agertoki politiko gisa baitarabil Lizartza, herritarrekiko neurri eta ondorio larriak eraginez. Ina eta Herriko Preso Politikoaren argazkiak kenduz; preso senideei diru laguntzak kenduz; Espainiako bandera inposatuz; herri adie-

razpenak ezabatu eta kenduz; manifik eta prentsaurrekoak debekatuz; EAJren gidaritzapean diharduten ertzainaren presentzia itogarria iraunkortuz; hiru herritar auzipetuz (bat Auzitegi Nazionalan!); agerpen faxistak areagotuz; eta abar, eta abar.

Aski da!! Egoera honek lehortu behar du. Lizartzarrok ezin ditugu onartu frankista kolonizatzaile eta ertzain probokatzaile hauek herrian. Bel-durak uxatu eta garenaz harro, herri nortasun biziz aurre egin behar diegu. Irudimenez,

borrokarako erabakitasunez eta zuhurtasunez. Gogor egiteko garaia da. Ez dago beste biderik, Borroka da bide bakarra!

Garenak garelako eta izaten segi nahi dugulako, gure herriaren alde lan egin eta borrokatu dezagun. Herriak erabaki duelako. Herrian nahi ez ditugulako. Herria garelako.

Gora Lizartza! Gora Euskal Herria!

HAIMAR ALTUNA, GARIKOITZ
ETXEBERRIA, AITOR AGIRREBARRENA
ETA KOLDO ALONA ▶ LIZARTZAKO
EUSKAL PRESO POLITIKOAK

ALEGIA ▶ KULTURA

II. Azaro Kulturala «abaraska aberastuz»

Larunbatean emango diote hasiera, herriko talde askok jorratzen dituzten kulturaren hainbat atal eskainiz

NEREA URBIZU

Herriko talde, «erle ezberdinen» artean osatu dute aurtengo Azaro Kulturala Alegian, II. Azaro Kulturala. Denon parte-hartzearekin antolatuta dute, eta Kultur Batzordeak hauen lana, «erleek osatutako abaraska» eskertu nahi izan dute, aurkezpena egitearekin batera. Aurtengo hurbilekoa da, herria bera askotan protagonista: herriko argazkiak, herriko dantzariak, herriko hizlariak, bertako bertsolariak... Eta larunbatetik hasita azaroaren 30era bitarte izango da guztia.

Bertsoekin egin zuten ongi-ortoria: bertso eskolako hiru kidek bertso bana bota zuten, eta ondoren, Maider Jauregi Kultur zinegotziak eskerrak eman zituen. Kirolari, bidaiari, naturari antzerkiari, aisiari, dantzari, irudiarri nahiz bertso-



Herenegun egindako aurkezpenean, kartela erakusten. N. URBIZU

ari egin diote lekua aurten ere. Hilabetearen baitan prestatutako guztiak, besteak beste, Alegiko argakizaleen taldea, Zazpi Astoren Gainean bertso eskola, dantzari taldea, Txintxarri abesbatza eta hainbat hizlari prestatu dituzte.

Maider Jauregik esan bezala, «talde hauek gabe ezingo litzateke ezer egin. Orain, ekitaldi hauetan guztietan parte hartu nahi duenak, parte har dezala». Beraz, orain, herritarrek ezia probatzea eta dastatzea besterik ez da falta.

EGITARAUA ▶ AZARO KULTURALA

AZAROAK 3, LARUNBATA
11:00. Bizikleta festa plazan.

AZAROAK 5, ASTELEHENA
Hilabete osoan. Jubilatuen egoitzan, *Alegiko bizimodua* argazki erakusketa.

AZAROAK 6, ASTEARTEA
19:00. Angel Rekalderen (Nabarraidea) hitzaldia: *1.200go konkista*.
▶ Panelak 6tik 10era bitarte.

AZAROAK 9, OSTIRALA
17:30. Haur antzerkia: *1, 2, 3, Inaxito*.
21:00. Bertso afaria Intxurre elkartearen.

AZAROAK 10, LARUNBATA
Dantzari Txiki Eguna.

AZAROAK 11, IGANDEA
11:00. Barazki eta animalia azoka, herriko plazan.

AZAROAK 12, ASTELEHENA
16:00-20:30. *Alegiko bizimodua* argazki proiektzioa.
▶ Azaroaren 13tik 16ra bitarte ere bai, Azaroaren 17an 11:00etatik 12:30era.
19:30. Eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa, azaroak 24ra arte.

AZAROAK 18, IGANDEA
Txintxarri Eguna.

AZAROAK 20, ASTEARTEA
19:00. Sorgin-orratzei buruzko hitzaldia, Iñaki Mezquitarekin.

AZAROAK 21, ASTEAZKENA
19:00. Herrian zehar kalejira Loatzo musika eskolarekin.
20:00. *Niloko ur lasterretan barrena*, Totu eta Xabin Gabilondorekin.

AZAROAK 22, OSTEGUNA
17:30. Haur antzerkia: *Bakartxoren zapatilak*.

AZAROAK 24, LARUNBATA
22:00. *Bota Patsa* antzezlan.

AZAROAK 25, IGANDEA
09:00. Mendi iteera.

AZAROAK 27, ASTEARTEA
18:00. Ipuin Kontaketa.
19:00-20:30. *Alegiko garai bateko dokumentuak*.

AZAROAK 29, OSTEGUNA
19:00. Jostailu egokiaren bila.
▶ Hitzaldiak eta antzerkiak Kultur Etxean izango dira.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berria, 13 etxebizitza 2 eta 3 logelakoak trastelekuarekin, 174.500 eurotik aurrera.

Altzo. Salgai eraberritzeko etxea 3 etxebizitzetarako, 10.000 m²ko lursailarekin.

Altzo. 75m²ko bi solairuko borda eta 10.000 m²ko lursaila.

Anoeta. Harrizko baserrian 90m²ko etxebizitza. Berritzeko.

Betelu. Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukaldea, bi bainugela,

terrazta eta altzariarekin. Egoera ezin hobean.

Ibarra. Etxebizitza salgai, 3 logela, sukaldea, berogailua eta igogailuarekin.

Ibarra. Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. 258.435 euro. Saltzea presazkoa.

Irura. Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Kanpoaldera, oso eguzkitsua. 237.500 euro.

Tolosa. Belatan, garaje itxiak salgai, 25 m²tik gora.

Tolosa. Errementari kalean, 3. solairuan, hiru gelako etxebizitza. Eraberritua.

Tolosa. Aldaba auzoan, 3 solairuko etxe abikia, lursailarekin. 297.000.

Tolosa. Errementari kalean, 62 m²ko etxebizitza 5. solairuan, 3 logelakoa. Garajea aukeran.

Tolosa. Berazubini, eraberrituriko etxebizitza, kanpoaldera, ikuspegi ederrak.

Tolosa. Larramendi kalean, pisu altua, igogailuarekin, egoera

bikinean, garajea eta trastelekuak aukeran.

Tolosa. Bialaren ondoan, 50 m²ko eraberritutako etxebizitza. 50 metro karratuko garaje handia dauka.

Tolosa. Ugarran Goena, baserria eraberritzeko. 240 m²ko solairua.

Tolosa. Arramele. 2. solairuan etxebizitza. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 157.500 euro.

Tolosaldea. Baserria 10.000 m²ko lursailarekin, eraberritzeko dago.

LEITZA ▶ ZINEMA

Asteburu honetan botako dituzten 2 filmarekin hasiko da zinema denboraldi berria

'Eutsi!' filmak zubi honetan hiru emanaldi izanen ditu eta Udalak eta eskolako guraso elkarteak antolatuta hurrek Perez sagutxoaren filma ikusi ahalko dute

NAIARA GARZIA

Udako etenaldia eta gero, zinema denboraldi berria hastear dago. Oraingo azaroan zehar 4 film ikusteko aukera izanen dute herritarrek, eta honetaz gain, Erletako Denok Bat Guraso Elkarteak eta Leitzako Udalak antolatuta ere, haurrentzat

ko beste film bat ikusi ahalko da asteburu honetan bertan.

Santu Guztien zubia oparota izanen da Leitzan, egun hauetan 2 film ikusteko aukera izanen baitute herritarrek, bat helduentzat, bestea haurrentzat. *Eutsi!* filmak 3 emanaldi izanen ditu egun hauetan zehar, ostegunean, ostiralean eta

igandean botako baitute, ondorengo ordutegietan: bihar 17:00etan, ostiralean 22:30ean eta igandean, 19:30ean. Bestalde, Erleta Eskolako Denok Bat Guraso Elkarteak eta Leitzako Udalak antolatuta *Perez, gure sagutxo hori* izeneko marrazki bizidunak ikusteko aukera izanen dute txikienek. Film hau

ere bi egunetan botako dute, azaroaren 4an eta 5ean. Zinemako ohiko sarrerak 5 euro baliotuen arren, haurrentzako film honen sarrerak 3 euro baliotuko ditu.

Lehenengo aste honetaz gain, azaroako gaineko asteburuetan ere beste hiru film ikusi ahalko dira: *El violín*, *Bajo Las*

Estrellas eta *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*. Aurreko denboraldian bezalaxe, film bakoitza ostiralean eta igandean botako dute, ondorengo ordutegietan: ostiralean 22:30ean eta igandean, 19:30ean.

Filmak irabazitako sariak

El violín film mexikarrak estreinatzen zutenetik nazioarte mailan 36 sari lortu ditu, *Bajo las estrellas* filmak Malagako (Espainia) zinema jaialdian 4 sari eskuratu zituen eta *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmak jada arrakasta ugari lortu ditu, baita liburuak, antzezlanak eta telesailak ere. Gainera Komedien Peñiscolako 19. Zinema Jaialdian (Castello, Herrialde Katalanak) Calabuch sari nagusia jaso zuen Mireia Gabilondoren eta Fernando Bernuesen film honek.

AZAROAK 1-2-4 ▶

EUTSI!

Zuzendaria.

Alberto J. Gorritiberea.

Gidoia.

Alberto J. Gorritiberea eta Unai Iturriaga.

Argazki zuzendaria.

Javi Agirre.

Iraupena. 90 minutu.

Aktoreak. Anjel Alkain, Asier Hormaza, Oihana Maritorea, Nagore Aranburu, Kandido Uranga, Jokin Oregi, Iñaki Rikarte.



2006-2007an ekoiztua. HITZA

AZAROAK 4-5 ▶



lazko gabonetan estreinatua. H

'PEREZ, GURE SAGUTXO...'

Zuzendaria. Juan Pablo Buscarini.

Iraupena. 92 minutu.

Gidoia. Lucia bere gurasoekin bizi da auzo lasai batean. Hortaz galtzen duen lehenengo gauean, Perez arratoiak ez dio txanponik uzten. Hau dela eta, Lucia larritu egiten da eta Perez arratoia bilatzea erabakiko du, Ramiro bere lehengusuaren laguntzarekin.

AZAROAK 9-11 ▶

'EL VIOLIN'

Zuzendaria.

Francisco Vargas Quevedo.

Gidoilaria.

Francisco Vargas Quevedo.

Argazki zuzendaria.


Martin Boege Paré.

Iraupena. 98 minutu.

Aktoreak. Angel Tavira, Dagoberto Gama, Fermin Martinez, Gerardo Taracena, Mario Garibaldi.

Generoa. Drama.

Estreinaldia. 2007. urtean.



2005ean ekoiztua. HITZA

AZAROAK 16-18 ▶



Apirilean estreinatua zuten. HITZA

'BAJO LAS ESTRELLAS'

Zuzendaria. Felix Viscarret.

Gidoia. Felix Viscarret,

Fernando Aranburu idazlearen *El trompetista de la utopia* eleberriaren oinarritua.

Argazkia. Alvaro Gutierrez.

Iraupena. 108 minutu

Aktoreak. Alberto San Juan, Emma Suarez, Julian Villagran, Luz Valdenebro, Violeta Rodriguez, Amparo Valle.

AZAROAK 23-25 ▶

'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL'

Zuzendaria. Fernando

Bernues, Mireia Gabilondo.

Gidoia. Karlos Zabala,

Nagore Aranburu, Joxean

Sagastizabal.

Argazki zuzendaria. Gaizka Bouryeau.

Iraupena. 97 minutu.

Aktoreak. Mikel Losada,

Ainere Tolosa, Miera

Gabilondo, Iñaki Irastorza,

Jose Luis Ugartemendia.

Musika. Iñaki Salvador.



laz aurkezua, zinemaldian. H



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶

Consuelo Leunda Alberdi

(Jose Cruz Otaegiren alarguna)



Xabier udal langilearen aita



Leaburu-Txaramako Udalaren izenean

LEABURU-TXARAMA, 2007ko urriaren 31

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Aurten lehenengo aldiz egindako Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren antzezlari irabazleak ikusi ahaliko dira Asvinenean, hau da, formatu txikikoak. Kontrapunto taldeak *Un perro escondido* emango du eta Casual taldeak *Ya le llamaremos*.

Anoeta. Maite Frankoren ipuin kontaketa Anoetako Udal Liburutegian 18:00etan HH2 eta HH3ko ikasleentzat.

Anoeta. AHTri buruzko herri galdeketa dela eta kontzertuak antolatu dituzte Gaztebaxean. Mantis eta Hardcore taldeak ariko dira.

Amezketeta. Azaroaren 3an, 1957an jaiotakoek kinto bazkaria ospatuko dute, Txindoki Jatetxean. Izena 943 654317 eta 943 653197 telefono zenbakira deituz eman behar da.

Orexa. *Henry Benga inventarium* antzerkilana antolatu dute 22:30etik aurrera udaltxeko ganbaran, Kultur Hamabostaldiaren barruan.

Tolosa. 39. Abesbatza Lehiaketako lehen saioa Leidor aretoan 19:30ean, Suedia, Ukraina eta Esloveniako abesbatzek



Oargi elkarteak argazki lehiaketa antolatu du

TOLOSA ▶ Oargi mendi elkarteak natura eta mendia hizpide izango duen argazki lehiaketa antolatu du. Bertan parte hartzeko oinarriak honakoak dira: natura eta mendiari buruzko argazkiak izan beharko dute. Argazkiarekin batera izenburua eta harremanetarako zenbakia jarri beharko da. tamaina, berriz, 20x30 zentimetrokoa izango da —30x40 zentimetro kartulinar—. Partaide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahaliko ditu eta azaroaren 15a baino lehen entregatu beharko ditu Foto Karlis argazki dendan. Irabazleentzat, argazki kamera digitala izango da. Bigarren sailkatuak 100 euroko erosketa txekoa eramanango du, Foto Karlis dendan erabili ahal izateko. Hirugarrenentzat, berriz, txekoa 50 eurokoa izango da. Argazki originalenak ere izango du saririk, mendi materiala hain zuzen ere Ondoren, argazkiak azaroaren 19tik 25era bitarte ikusgai jarriko dituzte elkartearen bertan. Izan ere, aste honetan zehar mendi materialaren merkaturia irekiko dute. Interesa dutenek bertara materiala eraman ahal izango dute. Antolatzaileek «materiala azaroaren 19a baino lehen ekaritzea» eskertuko dute. Aipatu materiala eramateko 18:30etik aurrera 637 830380 telefono zenbakira dei daiteke, Juan Manuelengatik galdetu. I. T.

polifonia sailean eta Ukrainia eta Esloveniako abesbatzek Folkore sailean abestuz.

Tolosa. Engomadora Modernako langile ohien bazkaria azaroaren 10ean izango da Fronton jatebaxean. Izen-ematea, 943 671943, 943 674669 eta 943 651955 telefono zenbakietan.

Tolosa. Jesusen Zerbitzarien haurtzaindegiko ikasle ohien bilera azaroaren 11n izango da: meza 11:30ean komentuan eta bazkaria Uzturre sagardotegian. Izen-ematea, 943 673081 telefonon.

Tolosa. Zezen-plazako bizilagunen afaria izango da azaroaren 10ean. Izen-ematea, ohiko lekuan.

Ugarte. Sardina-jatea Ugarten izango da iluntze partean. Txartelak salgai daude herriko tabernetan. 10 euroren truke. Txartelak azaroaren 4ra arte izango dira salgai.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
Irurtzun. Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

hitza Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedunen artean, **igandean azaroak 4**, 17:00etan **Tolosako Usabal kiroldegian** jokatu den **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako** final-laurdenetako kanporaketa saiorako **3 sarrera pare zozketatuko** ditugu.

Parte hartzeko, deitu GAUR 17:00ak bitarte: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

Ahotsik ederrenen atzean ere, **kutxa dago.**

Tolosako 39. Abesbatza-Lehiaketa Urriaren 27tik azaroaren 4ra

Urtaro berria bere Giza Ekintzaren bitartez, kutxa ikertu eta aurten ere Tolosako Abesbatza-Lehiaketari, beronen 39. edizioa irabazteko, gure herriaren musika, kultura eta balioak zabaltzearen...

3g

2007

gizarte ekintza

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa